

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak erabat gaitzesten du Bartzelonako atentatu terrorista

*Herritarrei dei egiten die bihar, eguerdiko 12:00etan, Nafarroako Jauregiaren aurrean elkartzera*

Osteguna, 2017.eko abuztuak 17

Nafarroako Gobernuak erabateko gaitzespena adierazten du gaur arratsaldean Bartzelonan hainbat biktima eragin dituen atentatu terroristaren aurrean, indarkeria terroristaren beste zentzugabekeria bat.

Gobernuak era berean elkertasuna adierazi nahi die biktimei, euren senide eta gertukoei, baita Bartzelonako herriari eta Kataluniari ere; eta bakearen alde lan egiteko bere konpromiso irmoa adierazten du, giza eskubideen errespetuan oinarrituz eta ezberdinen arteko elkarbizitzan.

Bakearen kulturaren defentsan eta balore demokratikoak berretsiz terrorismoarekin amai dezakegu, herritar guztiok batera.

Era berean, Nafarroako Gobernuak herritarrei dei egiten die bihar, abuztuak 18, Nafarroako Jauregi aurrean deitutako bilkurara agertzera, eguerdiko 12:00etan.